

## ARABAKO SENDAGAIGILEEN ELKARTE OFIZIALA

IRAGARPENA, Arrazua-Ubarrundian (Araba) Farmazia bat zabaltzeko beste eskabide batzuk aurkezteko hamabost eguneko epealdia emateko dena.

2464

## COLEGIO OFICIAL DE FARMACEUTICOS DE ALAVA

ANUNCIO por el que se abre un plazo de quince días durante el que podrán presentarse otras solicitudes de apertura de Farmacia en Arrazua-Ubarrundia (Alava).

2464

## Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak Disposiciones Generales del País Vasco

## HERRIZAINGO SAILA

891

AGINDUA, 1992ko martxoaren 20koa, Herrizaingo Sailburuarena, Euskal Autonomi Elkarteko Ertzaintzan mailaz igotzeko ikastaroak araupetzen dituzten arauak indargabetzen dituena.

Orain arte burutako aukeratze eta gaitze prozesu ezberdinek, alde batetik, eta Herrizaingo Sailaren egitura organikoan maiatzaren 14eko 311/1991 Dekretuaren eta ekainaren 19ko 372/1991 Dekretuaren bidez egin diren aldakuntzek, bestetik, beharrezko egiteko dute Euskal Autonomi Elkarteko Ertzaintzan mailaz igotzeko indarrean dauden arauak indargabetzea.

Horregatik eta Euskal Autonomi Elkarteko Ertzaintzaren Araudian oharmandakori atxikiz, honako hau

## XEDATU DUT:

1. atala.- Ondoren zehazten diren xedapenak indargabetzea:

- Herrizaingo Sailburuaren 1984eko abenduaren 17ko Agindua, Euskal Autonomi Elkarteko Ertzaintzan Mailaz Igotzeko Ikastaroetara iristeko aukeratze saioak arautzen dituena (EHA, 8, 1985-1-11).

- Herrizaingo Sailburuaren 1986ko martxoaren 4eko Agindua, 1984eko abenduaren 17ko Aginduko 5. atalaren 4. idazatian jarritako saioa kentzen duena (EHA, 55, 1986-3-20).

- Herrizaingo Sailburuaren 1986ko ekainaren 24eko Agindua, Euskal Autonomi Elkarteko Ertzaintzako Kabu Lanposturako Mailaz Igotzeko Ikastaroetako irakaskuntzen egitaraua zehaztu eta kalifikatzeko era arautzen duena (EHA, 132, 1986-7-4).

- Herrizaingo Sailburuaren 1987ko ekainaren 11ko Agindua, 1984eko abenduaren 17koa agindua aldatzen duena (EHA, 125, 1987-6-25).

2. atala.- Segurantzza Sailburuordeak dagokion deialdian hartutako Erabakian xedatutakoari atxikiz egingo dira Euskal Autonomi Elkarteko Ertzaintzan mailaz igotzeko ikastaroetarako aukeratze jardunbidea eta gaitze aldia.

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

891

ORDEN de 20 de marzo de 1992, del Consejero de Interior, por la que se derogan las normas que regulan los cursos de ascenso en el Cuerpo de Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La experiencia derivada de los diferentes procesos selectivos y formativos desarrollados, así como las modificaciones de la estructura orgánica del Departamento de Interior efectuadas mediante Decreto 311/1991, de 14 de mayo y Decreto 372/1991, de 19 de junio, hacen necesaria la derogación de las normas vigentes que regulan los cursos de ascenso en el Cuerpo de Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Por todo ello y de conformidad con lo previsto en el Reglamento del Cuerpo de Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco,

## DISPONGO:

Artículo 1.- Derogar las siguientes disposiciones:

- Orden del Departamento de Interior de 17 de diciembre de 1984 por la que se regulan las pruebas selectivas para el Ascenso en el Cuerpo de Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco (B.O.P.V. n.º 8, de 11-1-1985).

- Orden de 4 de marzo de 1986, del Departamento de Interior por la que se suprime la prueba establecida en el apartado 4 del artículo 5.º de la Orden de 17 de diciembre de 1984 (B.O.P.V. n.º 55, de 20-3-1986).

- Orden del Departamento de Interior, de 24 de junio de 1986 por la que se establece el programa de enseñanzas de los Cursos de Ascenso al Empleo de Cabo del Cuerpo de Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y se regula el sistema de calificación (B.O.P.V. n.º 132, de 4-7-1986).

- Orden de 11 de junio de 1987, del Departamento de Interior, por la que se modifica la de 17 de diciembre de 1984 (B.O.P.V. n.º 125, de 25-6-1987).

Artículo 2.- El procedimiento de selección y el período de formación de los cursos de ascenso en el Cuerpo de Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco se regirán por lo dispuesto en la Resolución de la convocatoria correspondiente del titular de la Viceconsejería de Seguridad.

## AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra Agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko martxoak 20.

Herrizaingo Sailburua,  
JUAN MARIA ATUTXA MENDIOLA.

## DISPOSICION FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 20 de marzo de 1992.

El Consejero de Interior,  
JUAN MARIA ATUTXA MENDIOLA.

## Beste zenbait Xedapen Otras Disposiciones

## INDUSTRIA ETA ENERGIA SAILA

892

ERABAKIA, 1992ko martxoaren 12koa, Industri Administrazio Zuzendariarena, «Enlace de la E.T.D. Alzarrate-Orozco-C.T. Uribitarte con la E.T.D. Amurrio-Orduña-C.T. Berganza y otros» izena duen, Orozkon (Bizkaia) eta Baranbion (Araba) egingo den, aidetikakoa eta 13 kVkoa den elektrabidea jartzeko administrazio baimena emateko dena, proiektuari onarpena emateko dena eta onura publikorakotzat deklaratzeko dena.

Bilboko Gardoki kaleko 8an bere egoitza izan eta Hidroeléctrica Ibérica Iberduero, S.A. enpresak eskatuta, Industriako Bizkaiko eta Arabako Lurralde Ordezkaritzetan hasi arazi den espedientea ikusi ondoren; eska bide horretan, honako hau jasotzen da, hau da, Orozkon (Bizkaia) eta Baranbion (Araba) egingo den, aidetikakoa eta 13 kVkoa den elektrabidea jartzeko administrazio baimena, proiektuari onarpena ematea eta onura publikorakotzat deklaratzeko. Instalazio Elektrikoen Baimenei buruzko 2617/1966 Dekretuko III. eta IV. Atalburuetan eta Industriaren Antolaketa eta Babesketari buruzko 1939ko azaroaren 24eko Legean ezartzen diren izapideak Lurralde Ordezkaritza horiek bete dituztenez.

Honako hauek ikusita: Baimen, Onura Publikorakotzat Deklaratze eta Aldaketarako Proiektuari Onarpena emateari buruz, horretan agintea duten Erakundeek eman dituzten txostenak.

Industri Administrazio Zuzendariak, egitura organikoa eta funtzionala ezartzen deneko martxoaren 5eko 139/1991 Dekretuz (91-03-12ko EHAA) ematen zaizkion eskuduntzen arabera, honako hau

## ERABAKI DU:

«Enlace de la E.T.D. Alzarrate-Orozco-C.T. Uribitarte con la E.T.D. Amurrio-Orduña-C.T. Berganza y otros» izena duen, Orozkon (Bizkaia) eta Baranbion (Araba) egingo den, aidetikakoa eta 13 kVkoa den elektrabidea jartzeko administrazio baimena ematea, proiektuari onarpena ematea eta onura publikorakotzat deklaratzeko. Honako hauek dira zernolakoak:

Lekua: Orozko (Bizkaia) eta Baranbioko (Araba) Udalerriak.

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA Y ENERGIA

892

RESOLUCION de 12 de marzo de 1992, de la Directora de Administración Industrial, por la que se concede autorización administrativa de instalación, aprobación del proyecto de ejecución y declaración en concreto de la utilidad pública de la línea eléctrica aérea de 13 kV. denominada «Enlace de la E.T.D. Alzarrate-Orozco-C.T. Uribitarte con la E.T.D. Amurrio-Orduña-C.T. Berganza y otros» en los municipios de Orozko (Bizkaia) y Baranbio (Araba).

Visto el expediente incoado en las Delegaciones Territoriales de Industria de Bizkaia y Alava a instancia de Hidroeléctrica Ibérica Iberduero, S.A., con domicilio en Bilbao, c/ Gardoqui, 8, en la que solicita autorización administrativa de instalación, aprobación del proyecto de ejecución y declaración en concreto de utilidad pública de la línea eléctrica aérea de 13 kV. denominada «Enlace de la E.T.D. Alzarrate-Orozco-C.T. Uribitarte con la E.T.D. Amurrio-Orduña-C.T. Berganza y otros» en los municipios de Orozko (Bizkaia) y Baranbio (Araba) habiéndose cumplido por dichas Delegaciones Territoriales los trámites reglamentarios ordenados en los Capítulos III y IV del Decreto 2617/1966, sobre Autorización de Instalaciones Eléctricas y en la Ley de 24 de noviembre de 1939, sobre Ordenación y Defensa de la Industria.

Vistos los informes que sobre la Autorización, Declaración de Utilidad Pública y Aprobación del Proyecto para la Modificación, han emitido los Organismos competentes.

La Directora de Administración Industrial en virtud de las competencias otorgadas por el Decreto 139/1991, de 5 de marzo por el que se establece la estructura orgánica y funcional (BOPV 12-3-91).

## RESUELVE:

Conceder autorización administrativa de instalación, aprobación del proyecto de ejecución y declaración en concreto de la utilidad pública de la línea eléctrica aérea de 13 kV. denominada «Enlace de la E.T.D. Alzarrate-Orozco-C.T. Uribitarte con la E.T.D. Amurrio-Orduña-C.T. Berganza y otros» en los municipios de Orozko (Bizkaia) y Baranbio (Araba) cuyas características son las siguientes:

Emplazamiento: Término municipal de Orozko (Bizkaia) y Baranbio (Araba).